

## BASERRIKO ZORIONA.



¡ZORIONEKOAK PAKETSUAK!

*Composicion premiada con UN ACCÉSIT en el Certámen científico,  
literario y artístico celebrado en Pamplona en 1885.*

Nere jauregiya da baserrichoa,  
Mendi-tartean umill gordetakoa:  
¡Choko gozoa!  
Zu zerade neretzat ederragoa,  
Maiteagoa,  
Ez errege-eche galaz betetakoa.

Jayo nintzan ¡bai! zure tellatupean,  
Aitonak jayo ziran toki berean:  
Aur nintzanean,  
Atariko gaztaña zarren artean,  
Zelai-gañean,  
Jostatzen nintzan pozez, atsegiñean.

¡Nere baserri maite maitagarriya!  
Zugan daukat bizitza chit naigarriya;  
Mundu guztiya  
Ez da neretzat ¡ez! zu beziñ alaiya  
Miresgarriya,  
Nere aitonon aiton zarren kabiya.

Zure sukalde-choko kez estaliyan,  
 ¡Zenbat poz izan dedan nere biziyan!  
     Iñoiz agiyan,  
 ¿Norbait ainbeste poztu da jauregiyan,  
     Galen azpiyan,  
 Nola ni nere choko maitagarriyan?

Asko bizi dirade diru-tartean,  
 Ez dakitela zér poz dagon pakean:  
     Oien echean,  
 ¿Nola bizi jendea zorionean?  
     Pake gabean  
 Bizi dana, bizi da modu tristean.

¿Zertako nai det beraz oyen urrea,  
 Baldin askotan bada beren kaltea  
     T' atsekabea?  
 Da milla eta milla bider obea  
     Nere nekea,  
 Bada berarekin det dedan pakea.

¡Pakea!... Zeruetan zera sortua,  
 Lagatzeko biyotza guri poztua.  
     ¿Zér da dirua  
 Pakerikan ez bada? ¿Zér dirutsua?  
     ¡Pake santua!  
 Zaukazkit baserriyan ezkutatua.

Emen badet artoa, badet gariya,  
 Badet gaztañadiya, naiz sagastiya,  
     Badet saroiya:  
 Jaunak biraldurikan euri ugariya,  
     Gozagarriya,  
 Mardulik arkitzen da guzti-guztiya.

Erreka bat, ez urrun baserritikan,  
 Igarotzen da lurrak urezturikan,  
     Indarturikan:

Inchaur-arbol galantak ark bustirikan  
 Sustraiyetikan,  
 Inchaurra ematen dute chit gogotikan.

¿Non dira emen ditudan musik' eztiyak?  
 ¿Non emen bezelako choragarriyak?  
 Chori chikiyak  
 Egiñik arboletan beren kabiyak,  
 Ikusgarriyak,  
 Kantuz pozten dituzte bazter guztiyak.

¡Zéñ ederra dan emen udaberriya!  
 Dena dago inguruan lorez jantziya,  
 Dizdizariya:  
 Belarra mardulikan intzez bustiya,  
 Eta mendiya,  
 Bildotsez estalirik, churi-churiya.

Udan eldurik dauzkat gari-soroak,  
 Eta gora ta gora datoz artoak,  
 Egun beroak  
 Eta gabaz erortzen dan intz gozoak,  
 Pozgarrizkoak,  
 Emanik indar aundi eta sendoak.

Udazkenean berriz, udazkenean,  
 Alorta denak sartzen ditut echean,  
 Tellatupean:  
 Ugaritasun ura begiratzean  
 Nere aldean,  
 Ez det nik tristurarik negu beltzean.

Zenbat eta lurretik urrutiyago,  
 Ainbat urbildurikan Zerura nago:  
 ¿Nonbait badago  
 Mendiyan dagon baño miñ guchiyago,  
 Pake geyago?  
 ¿Iñon bizi liteke doatsuago?

Eguzkiya goizean azaldutzean,  
 T' atsegiña munduaz jabetutzean,  
     Eche aurrean  
 Chorichoen kantuak aditutzean  
     Arbol-artean,  
 Poz gozatsua sartzen zait biyotzean.

Irtetzen naiz echetik zoraturikan,  
 Ainbat miraritasun ikusirikan:  
     Goraturikan  
 Anima Jaunaganonz, arriturikan,  
     Gogaldurikan,  
 Otoitz-egiten det chit biyotzetikan.

Iristen naiz sorora: nere lanean  
 Ziñez ari naizala, begiratzean  
     T' eche maitean  
 Kea gora doala ikusitzean,  
     ¡An! barrenean  
 Diot, pozaren pozez ler-bearrean:

¡Nere echetik irtetzen zeraden kea!  
 Itzegiten didazu izkuntz maitea,  
     Pozemallea:  
 Zuk esaten didazu, kecho nerea,  
     Nere emaztea  
 Dagola neri ongi-nayez betea.

Eguzkiya sartzen da: ezkill-soñuak  
 Esnatzen ditu oyarzun mendipekuak:  
     Agur santuak  
 Egiñik Mariyari, gure pausuak  
     Eta goguak  
 Echeronz-badijoaz arras poztuak.

¡O zér zoriona dan lan egitea,  
 Jaunaren aginteak obeditzea!  
     ¡Zér mesedea,

Bakoitza bere izanaz kontentatzea!  
Pozez betea  
Bizi naiz, nagolako goinai gabea.

Bedeinkatua zera, bedeinkatua,  
Baserriko bizitza meziprezatua:  
Biyotz mintsua  
Zugan gelditutzen da chit sendatua:  
Zoriontsua  
Baserri baten bizi dan paketsua.

KARMELO ECHEGARAY-KOAK.

